

Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Zerbitzu kontratua, lehiaketa irekia. BERMEOKO UDALEKO ZERGA IKUSKARITZARAKO ZERBITZUA ETA LAGUNTZA EMATEKO KONTRATUA.

Espediente zenbakia: 2007/08

ADMINISTRATIO-BALDINTZA ZEHATZEN

LABURPEN ORRIAK

A. KONTRATUAREN XEDEA

Orri honeetan oinarrituta egingo dan kontratuaren xedea Bermeoko Udaleko Udal Zergen Ikuskaritzarako lankidetzeta eta laguntza zerbitzua kontratatzea da, eta zehazpen honeek beteko dauz:

1.- Kontratista Bermeoko Udalagaz elkarlanean arituko da eta laguntza emongo deutso, ikuskaritzari jagokon lan guztiak egiteko. Udalak izendatutako lagunaren nahiz lagun bitartez egingo du lan hau: preskribitu ez dan eta kitatu ez dan, nahiz kitapena subjektu pasibo edo zergadunak aitortutakoaren arabera behar bezala egin ez den eta administrazioak jakin eta ikuskatu duen zerga egintza jakitearen eta azaltzearen ondorioz, kitapenak adierazteko udal zerga guztien ikuskaritza.

2.- Honako fase hauetako lankidetzeta eta laguntza ematea ere kontratu honen xede dira halaber:

- Dagoen egoeraren analisia, kontratuaren formalizazio urteari dagokionez. Indarrean dauden Zerga Ordenantzak aztertu, analizatu eta aldatzeko proposamenak egitea, nahiz zerga kitapena, kontrola eta datuak eguneratzea ere barne izango dira.

- Urtaldi bakoitzeko ikuskaritza planaren proposamena egitea. Momentuko egoeraren azterketaren eta lortutako ondorioen arabera urteko ikuskaritza plana



aurkeztuko da eta bertan zerga obligaziodunak (edo zehazteko irizpideak), zergak, metodologia eta abar zehaztuko dira.

- Udal zergen menpeko zerga obligaziodunen ikuskaritza eta, horretarako, zerga kitapenak egin bitarteko egintzak zehazteko errekerimenduen adierazpena egitea eta beharrezko agiriak idaztea. Proposamen horiek Udalak ezarritako pertsonak, aktuario bezala jardungo duenak, gauzatuko ditu.
- Egindako zerga ikuskaritzatik datozen diru sarrerak kontrolatzeko laguntza, ikuskaritza dela eta egin daitezkeen izaera administratiboko helegiteak ebazteko proposamena duten txostenak idaztea barne.
- Administrazioaren erantzuna adierazi aurretik, prozeduraren bideragarritasunari buruzko txostena emango da, behar denean, Administrazioarekiko auzietako helegiterik edo bestelako helegiterik balego.

B.- SAIL PROMOTOREA.

BERMEOKO UDALA – KONTUHARTZAILETZA SAILA

C. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa ezin da alde zuzenik kuantifikatu, eta atal honetan azaldutakoaren arabera egindako jarduera ikuskatzaileen eta horietatik ondorioztatutako emaitzen baitan dago.

Publizitate efektu soiletarako, aurrikuspena 30.050,61€koa da, aurrekontuetarako eta kontrataziorako kontutan hartuko dana.

Orri honen hurrengo ataletan adierazitako gehienezko kopurua hartuko dute erreferentziazat egingo diren eskaintza ekonomikoak.

Klausula honetako lehenengo paragrafoan adierazitako kontratuzko muga gorabehera, udal zerga guztietako ikuskaritza lanak behar bezala egin daitezkeen eta lan hauek uste baina handiagoak eta ugariagoak gertatuko balira, bere ekonomian orekarik eza eragin ez dezaten, eskaintza jarraian azalduko diren kontzeptuetan



oinarrituko da, proposamen ereduan jasotako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 202, 2 artikulua baimentzen duenaren arabera:

1. Egindako jardueretan nahiz ikuskaritzetan ikuskatutako subjektu pasiboek zerga kitapenak egitea ahalbidetzen duten oinarri berriak topatu gabe azkenean "egiaztatua eta ados dagoena" dioten zerga egoeren irekiera, hasiera eta egiaztapen jarduerak egiteagatik:

- ✓ **Gehenez ere: 30 euro ikuskatutako espediente bakoitzarengatik.**

2. Ikuskaritza egiterakoan, azkenean zerga kitapenak dituzten ikuskaritza aktak egitea eta dagozkien isunak ezartzea, zergapekoaren adostasunaren onarpenarekin nahiz desadostasun aktarekin, dakarten espedienteak bideratzea ahalbidetzen duten gordetako nahiz aitortu gabeko zerga-oinarriak edo egoera irregularrak topatu eta espediente horiek izaera irmoa izango balute.

- ✓ Ikuskaritza egiterakoan kitatutako eta aurkitutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak), era eraginkorrean kobratu direnean, eta gainera, zergapekoa etorkizunean jarraipena duten zerga erroldetan sartzea ekarri dutenean: **argitara emandako kopuruen %70 bitarte.**
- ✓ Ikuskaritza egiterakoan kitatutako eta aurkitutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak), era eraginkorrean kobratu direnean eta gainera, gertaera zergapegarri bakanak izanik, sortzapenak behin bakarrik eta errepikapenik gabe eman direlako zergapekoa zerga-erroldetan sartzan ez denean: **argitara emandako kopuruen %35 bitarte.**

Lizitatuak dirukopuru eta portzentai honek hobetu ditzake.

D. AURREKONTU KONSIGNAZIOA.

Kreditu erreserbako txostena, "A" agiri kontablea, Bermeoko Udaleko 2007ko Aurrekontuak Exekutatzeko Udal araudiak xedatutakoaren arabera.



E.- URTEROKOA

Kontratu honen esleipena, indarrean dagoan epean eragiten dauzan obligazio guztiei aurre egiteko kreditu egoki eta nahikoa izatearen baldintzapean geratzen da, horrela izan ezean kontratua etenda gelditu daitekelerik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateetako Aurrekontuen 10/2003 Foru Aginduak xedatu bezala.

F.- TRAMITAZIOA

Arrunta.

G.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA.

Iragarkia argitaratzen dan hurrengo egunetik hasita, hogeigarren (20.) egun naturalera arte.

H.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA.

BERH@Z BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 behea. 48370 BERMEO

I.- BEHIN BEHINEKO FIDANTZA.

601,01€ ko behin behineko bermea aurkeztu beharko da. (prezioaren %2)

J.- BEHIN BETIKO FIDANTZA.

1.202,02€ (prezioaren %4). Eskaintza ausartegia izango balitz, behin betiko bermea lizitazio prezioaren %20koa izango da.

K. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

2007. urterako prezioak ezin dira berraztertu.

Hurrengo urteetarako, kontratu honetako prezioak Euskal Autonomia Erkidegoko KPI ofizialaren arabera berrikusi ahal izango dira, Herri Administrazioen Kontratuaren Legeko 104. artikuluan aurreikusten diren baldintzak ematen direnean.

L. KONTRATUA BURUTZEKO/EXEKUTATZEKO EPEA.

Kontratua exekutatze epea, kontratuaren iraupen osoa izango da.



Kontratu honek 2007ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra iraungo dau, eta urte beteko bi luzapen egin daitezke elkarren arteko adostasunez, kontratua amaitu baino lehen.

Kontratuaren iraupena, luzapena eta guzti, ezin izango da lau urte bahino gehiagokoa izan, eta luzapenak berariaz adostu behar dira.

Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

M. BERME-EPEA.

Berme epea urte betekoa izango da ikuskaritza lanak amaitzean zenbatzen hasita edo, horrela badagokio, kontratua nahiz bere luzapenak gauzatzeko epea amaitzen denean zenbatzen hasita. Horretarako ikuskaritza lanak amaitu ondoren, aipatutako berme epea zehaztuko duen akta sinatuko da.

N.- ESLEPENERAKO IRIZPIDEAK.

Ekainaren 16ko 2/2000 Erret Dekretu Legislatiboak onartu eban Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 86. artikulua xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere.

- a) PREZIOA: 55 PUNTU
- b) LAN METODOLOGIAREN MEMORIA: 45 PUNTU.

Irizpide bakoitzaren balorazioa ondorengo eran burutuko da:

- **Prezioa:** Eskainitako prezioen azterketa egingo da. Ekonomikoki kuantifikatu ondoren,





eskaintza bakoitzaren puntuaketa lortzen da, eskaintza baxuena eta baloratzen dan eskaintzaren arteko zatiketarik sortzen dan koefizientea, irizpidean emon daitekezan puntuakaz biderkatuz. Hau da:

(Ob/OI) x 55

Ob: eskaintza baxuena.

OI: baloratzen dan eskaintza

55: prezioagaitik emon daitekezan puntuak gehienez.

Lan metodologiaren memoria: Baldintza Plegu teknikoetan ezartzen diran kontratistaren lan betebeharrak aurrera eramateko, egokitutako lan metodologikoa aurkeztuko dau lizitatzailerak. Bertan, ondorengoak agertu beharko dira: ebaluaketa prozedura eta ebaluaketa irizpideak, lan ildoak, metodologiaren deskribapena, eta antzekoak.

Memoria euskaraz aurkeztu beharko da.

O.- PUBLIZITATE GASTUAK.

Publizitate gastua, kontratistaren kargura joango da, eta gehienez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko iragarki baten kostua izango dau.

P.-ALDAERAK ONARTZEA.

Ez dira eskaintzetan aldaerarik onartuko.

Q.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK:

Enpresa esleipendunak udalak beretzat dituen hizkuntza irizpideak hartu beharko ditu bere gain. Beraz, honako hizkuntza irizpideak bete beharko ditu.



- - Lanean arituko den/diren langilea/k EGA edo baliokidea egiaztatuta izango du/dute. Agiri hori edo baliokiderik izan ezean, gaitasuna erakutsi beharko du/dute bai ahoz, zein idatziz baldintza agiri honetako 1.2 eta 10 klausuletan zehazten diren lanetan euskaraz jarduteko.

- - Koordinazioaren arduraduna euskalduna izango da.

- - Lanak egiten jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, euskaraz jardungo du, bai udal barruko harremanetan, eta bai kanpoko harremanetan (enpresa eta pertsona fisikoakaz), beti ere, beste aldean dagoenaren hizkuntza eskubideak errespetatuta.

- - Idatzizko barne harremanetarako eta kanpo harremanetarako erabiliko den dokumentazio idatzia euskaraz egongo da. Kanpo dokumentazioari dagokionez, ale bi izango ditu esleipendunak, bata euskaraz; eta bestea euskaraz eta gaztelaniaz euskarari lehentasuna emanda, gaztelaniazko testua eskatzen duenari eman ahal izateko.

- - Enpresei eta pertsona fisikoei udalaren izenean bialdu beharreko jakinarazpen eta agiri ofizialak elebietan bidaliko dira, beti ere, Euskararen Erabilera Arautzen duen Ordenantzarekin bat etorritik, hau da, lehentasuna euskarari emanda, eta euskarazko testua bi aldiz handiago idatzita.

- - Esleipendunak udalari aurkeztu beharreko dokumentazio guztia euskaraz egongo da, bai 1.2 eta 10 klausuletan zehazten diren lanetatik eratorritakoa, eta bai lan administratiboetatik eratorritako edozein (fakturak eta abar)

- - Udalak euskara baino ez du erabiliko esleipendunarekiko harremanetan, bai idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dio inolako itzulpenik eskainiko.

R.- OHARRAK:





Bermeoko udalak, kontratistari lokal bat utziko deutso lan honeek aurrera eroateko. Kontratistak, lokal horren erabilpenagaitik, ondorengo tasa ordainduko deutso Udalari: 240,00€/hilero (Berrehun eta berrogei euro hilabetero). Tasa hau urtero KPlan gaurkotuko da.

Bermeon, 2007ko otsailaren 19an.



Erosketak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9120 Faxe: 94 617 9140
erosketak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

-8-

Administrazio Baldintza zehatzen orria

Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Zerbitzu kontratua, lehiaketa irekia. BERMEOKO UDALEKO ZERGA IKUSKARITZARAKO ZERBITZUA ETA LAGUNTZA EMATEKO KONTRATUA.

Espediente zenbakia: 2007/08

**ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-
BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
LEHIAKETA PROZEDURA IREKI BIDEZKO
ESLEIPENA**

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratua ondorengo legediaren erregimena jarraituko dau:

- Baldintza-agiri honeetan.

- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak. (Aurrerantzean T.R.L.C.A.P)

- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere. (Aurrerantzean R.G.L.C.A.P.)

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki entitateetako Oinarriak arautzen dauzan Legea, eta apirilaren 18ko 781/1986 RDLak onartzen dauan Toki Entitateetako legediaren Testu bateratua



- Orokorrean, kontratu honeri aplikagarri dan administrazio kontratazioei buruzko gainontzeko indarreango legedia, baita zerga zorren nahitaezko betebeharrak xedatzen dauzan arauak ere.

- Zuzenbide pribatuko arauak, ordezeko zuzenbide gisa aplikatuko da, beti ere, aipatutako legedian, kontratuaren interpretazio, ondorio, burutze eta amaierari buruz suertatzen diran galderari erantzuna ez bada aurkitzen, .

1.2.- Kontratu honetan, bai fabrikaziorako, bai entregak edo horniduren instalazioak egiteko, erabiliko dauan langileria buruz, Lan arloko legeria eta Gizarte segurantzako legeria ere bete beharko dau lizitatzailerak.

1.3.- Kontratuaren objektua makinariaren erabilera edo erosketa suposatzen dauanean, ondorengo segurtasuneko legedia bete beharko da.

Azaroaren 27ko 1.435/1992 R.D., Urtarrilaren 20ko 56/1995 R.D., aurrekoa aldatzen dauana, eta 1991ko apirilaren 8ko Agindua, MSG-SM-1 Agindu Tekniko Osagarria onartzen dauana, Makinetako Segurtasun Erregelamendukoa, erabilitako makinaren elementuei eta babesteko sistemei burukoa dana.

1.4.- Kontratuko edozein terminoetako ezagutza eza, baita erantsitako agiriak, edota kontratatutakoa burutzeko Administrazioak emon daikkeen edozein agindu, plegu, eta edozein motako arauen ezagutza eza, ez da zioa lizitatzailerak nahitaez betebeharrekoak ez betetzeko.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

2.- KONTRATUAREN OBJEKTUA.

Zerbitzu kontratu honen objektua, baldintza plegu honen **LABURPEN ORRIKO "A"** **ATALEAN** agertzen dana da, Baldintza plegu teknikoaren xehetasun teknikoaren arabera.



Bai laburpen orria, bai baldintza plegu administratibo zehatz hau, bai baldintza plegu teknikoak ere kontratuaren zati dira, modu berean betetzeko exijituko diranak.

3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA KREDITU KONSIGNAZIOA.

Kontratuaren aurrekontua, lizitaziorako oinarri gisa erabiliko dana, **LABURPEN ORRIKO “C” ATALEAN** agertzen dana da, eurotan agertuko dana, gehienez bi hamartar erabiliz.

T.R.L.C.A.P. legearen 11.2.e) artikulua xedatutakoari buruzkoa dala eta, laburpen orriko **“D” ATALAK** zehaztutakoa beteko da.

4.- ESLEIPEN PROZEDURA.

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 73.2 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, testu horren 180.2. artikuluan jasotako kasua baita.

Lanak egiten jardungo dauan enpreseak, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Era berean, Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

5.- KONTRATUA BUURTZEKO/EXEKUTATZEKO EPEA.

5.1.- Kontratu honen indarreko epea, zerbitzuaren entrega epea eta berme epea ere barneratzen dau.

5.2.- Burutze/exekuzio epea kontratuaren Laburpen orriko **“L” ATALEAN** agertzen dana izango da.

Epe hori luzatu daiteke, indarreango legediak zehaztutako egoera eta baldintzak betetzen diranean bakarrik.



Ondorioz, entregak Bermeoko Udaleko bulegoetan burutuko dira, kasuan kasu seinalatuko diranak, eta beti ere udalerrriaren barruan.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

T.R.L.C.A.P. legearen 103. artikulua xedatutakoa beteaz, kontratu honen laburpen orriko “K” **ATALEAN** agertutakoa beteko da.

7.- ESKAINTZAK AURKEZTEA.

7.1.- Eskaintzak, plegu honetako **1.ERANSKINEAN** agertzen dan eredura lotuko dira.

7.2.- Lizitatzailiek eskaintzen daben prezioetan, kontratuaren exekuzioaren ondorioz sortutako edozein zerga, tasa, garraio gastu eta bestelako edozein gastu ere barne izango dira. **Unitateko prezioetan esleitzen bada, udalak zehaztuko dau, eskaintzetan BEZ barne agertu behar dan ala ez.**

7.3.- Baldintza plegu guztiak eta gainontzeko dokumentazioa aztertzeko interesa daukinek, parte hartzeko gonbidapenean agertzen dan tokira zuzenduko dira.

7.4.- Lizitatzailiek euren eskaintzak eta gainontzeko agiriak gutunazal desbardin bitan aurkeztuko dabez, itxita, lakratuta edota prezintatuta egon daitekezanak. Lizitatzaille bakoitzak eskaintza bakarra baino ezin izango dau aurkeztu.

Era berean, ezin izango dau bestelako eskaintzarik aurkeztu aldi baterako enpresa elkarte bidez, banaka eskaintza bat aurkeztu badau. Hori horrela egingo ez baleu, T.R.L.C.A.P. legeak 80. artikuluan xedatutakoa beteaz, lizitatzaille horrek aurkeztutako eskaintza guztiak baztertuak izango dira, Loteen kasuan izan ezik. Kontratua loteetan zatitua badago, lote bakoitzeko eskaintzak aurkeztu ahal izango dauz.

7.5.- Lizitazio honetara, edozein enpresa aurkeztu daiteke, pertsona fisiko edo juridikoa, aldi baterako enpresen elkarteak, beti ere elkarteko guztiek administrazioagaz kontratatzeko lege xedatutako baldintzak eta ondoren zehazten diran baldintzak ere,



betetzen badabez.

7.6.- Eskaintzak euskaraz edota euskaraz eta gazteleraz aurkeztuko dira.

7.7.- Eskaintzak aurkeztea, lizitatzailleak baldintza pleguetako klausula guztiak bere osotasunean onartzen dauzala suposatzen dau, baita erantzukizunpean deklaritzen dauzan datu guztien zehaztasuna eta zerbitzu kontratazioa burutzeko baldintza guztiak betetzen dauzala ere.

8.- ESKAINTZEN EDUKIA.

8.1.- Aurkezten diran gutunazal biak, itxita eta lizitatzailleak sinatuta aurkeztuko dira, eta kanpoaldean, **LIZITATZAILEAREN IZEN ABIZENAK EDO ENPRESAREN IZENA ETA HELBIDEA, JAKINARAZPENETARAKO POSTA ELEKTRONIKOA (e-mail) ETA KONTRATUAREN OBJEKTUA**, plegu honen laburpen orriko **“A” ATALEAN agertzen dana.**

8.2.- Gutunazal biak, Bermeoko Udaleko, herritarren harreta zerbitzuko bulegoan BERHAZ, zeinetan, aurkezleari erregistroaren agiria entregatuko jako, laburpen orriko **“G” ATALEAN** agertzen dan epearen barruan horrela egiten badau, edota kasua bada, lizitazio iragarkian. Hala eta guztiz ere **Correos-eko bulegoetan eskaintzak aurkezteko**, R.G.L.C.A.P.-ko 80.4. artikulua xedatutakoa jarraituko da; eta **kasu horretan, aurkezpenaren iragarkia posta elektronikoz bidaliko jako Bermeoko Udalari (erosketak@bermeo.org)**, artikulua honetan agertzen diran baldintzak beteaz.

8.3.- Gutunazalen barruan aurkezten danaren zerrenda atxikituko da, agiriak zenbakiekaz sailkatuz. Gutunazal batetan legearen 79.2 artikulua exijitutako agiriak aurkeztuko dira, eta beste gutunazalean eskaintza ekonomikoa eta ezaugarri teknikoak.

8.4.- Proposamenak aurkezteak, esleipena onartzearen eginbeharra inposatzen deute lizitatzailleei, esleitzen bajake noski. Eskaintza bat aurkeztu eta gero, ezin izango da erretiratu, hori justifikatuz ez bada.



8.5.- A” gutunazala: Agiri orokorrak eta referentzia ekonomiko, finantziario, tekniko edo profesionalak.

8.5.1.- Agiri orokorrak dirala eta, Ekainaren 21eko 59/94 Foru Dekretuak xedatzen dauan Kontratisten Erregistroan inskribaturik dagozan lizitatuak, erregistroko Tekniko arduradunak emondako ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahal izango dabe “A” gutunazalean, agiri horretako datuak indarrean eta baliozkoak diranaren erantzukizunpeko deklarazioagaz batera.

Kontratisten erregistroan inskribatu barik dagozanak, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dabez “A” gutunazalean:

a) Lehiatzailearen edo beraren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia **DNI/NAN**. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, **notario-ahalordea**.

b) Jarduteko gaitasuna: Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, **eritze- edo aldaketa-eskritura** aurkeztuko dau, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badau, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Inskripzioa derrigorrezkoa ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko dau jarduteko gaitasuna daukala frogatzeko.

Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar danean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jardura zuzentzen daben arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dabe, euren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badeutse.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar dau, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez dauala agertzeko.



2.ERANSKINA.- Erantzukizunpeko Deklaraziorako eredia- enpresen kasuan- edo

3.ERANSKINA- pertsona fisikoen kasuan.

Aitorpen horretan berariaz adieraziko dau kitaturik daukazala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dagozan xedapenek ezarritakoak. Edozein kasutan eta esleipen erabakia hartu aurretik, kreditatu egin beharko da aitorpen hori, egiaztagiria aurkeztuz, betebeharrak horreek beterik daukazala frogatzeko.

d) Kasua bada, behin behineko fidantzaren agiria, plegu honetako laburpen orriko **“I” ATALEAN** agertzen dan dirukopuruan.

Fidantza hori, T.R.L.C.A.P. legearen 35.artikuluak xedatutako moduetan onartuko da. Fidantza metalikoa aurkeztuz gero, Bermeoko Udaleko Diruzaintzan aurkeztu beharko da (Intxausti 2-1. 48370 BERMEO) eta sail honek emondako agiriaren berebiziko agiria edota kopia konpultsatua sartuko da gutunazalean.

Administrazioak, bermeetan agertutako sinadurak legitimatzeko eskubidea bereganatzen dau.

e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari jagokon epigrafean hain zuzen ere, alta emon deutoela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko dau, uneko ekitaldian bertan hartua badau, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko dau. **4. ERANSKINA.- Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko deklarazioaren eredia.**

8.5.2.- Honetaz gain, erreferentzia ekonomiko, finantziero, tekniko eta profesionalen buruz, bai kontratisten erregistruan inskribatu bakoak bai inskribatutakoak ere, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dabez **“A” GUTUNAZALEAN:**

a) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Institutio Finantzieroen txostena edo Arrisku Profesionalengaitiko kalte-ordainei aurre egiteko aseguru baten frogagiria. Beste kasu



batean, Herri Administrazioen Kontratuak buruzko Legearen Testu Bateginaren 16. eta 18. artikuluetan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

b) Azken hiru urteetan emondako zerbitzurik nagusienak agertzen dauzan zerrenda, dirukopuruak, datak eta bakoitzaren helburu publiko edo pribatua agertuz.

*** Gaitasuna**

Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko dirala adierazi beharko dabe, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia daben gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari jagoken atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

*** Kaudimena.**

Plegu honetako 8.5.2 atalean xedatutakoagaz jarraituz, hainbat enpresak negoziazio bidera jotzen badabe aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko dau aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera.

Administrazio honen aurrean enpresa batasun hori efikaza izan daiten, horren eraketa egiteko konpromezuaren idazki bat baino ez dabe aurkeztu behar, zeinetan, sinatzaileen izen eta bestelako datuak, bakoitzaren partizipazioa eta, kontratuaren iraupen epean, Administrazioaren aurrean euren guztien ordekaritza izango dauan pertsonaren izen abizenak, solidarioki obligatuta geratuko dana Administrazioaren aurrean.

Esleipena lortuz gero enpresa batasun horren eraketaren eskritura publikoa aurkeztu beharko dau, baita ordezkariaren izendapen eta botere agiriak ere, kontratua amaitu arte eragiten dauzan betebeharrak bete eta eskubideak erabiliko dauzana,

Aldi baterako Enpresa batasunaren iraupena kontratu amaierako epeagaz lotuko da.

8.5.3.- Enpresa lizitatzailerako langile minusbaliatuen kopurua plantilako %2 baino handiagoa daukanean, eta ekainaren 16ko 2/2000 RDL-ak onartzen dauan



T.R.L.C.A.P. legearen zortzigarren Xedapen Gehigarriak eta Kontsumo eta Osasun Ministeritzako 2001eko abenduaren 17ko Aginduak xedatutakoagaz babestu nahi dauanak, egoera hori kreditatzen dauan agiria aurkeztu beharko dau.

8.5.4.- Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Udalak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar dauz.

8.6.- “B” Gutunazala: Proposamena

8.6.1.- Plegu honen **1.ERANSKINAREN** arabera. Edozein kasutan, eskaitzen dan prezioa ezin izango dau onartutako aurrikuspeneko dirukopurua, BEZ barne. Ezaugarriak Baldintza Plegu teknikoetan ezarritakoak izango dira.

Efektu guztietarako, eskainitako prezioak, ez bakarrik hornitu beharreko produktuen prezioa osotzen dauala, baizik eta edozein zerga, BEZ-a barne, edozein motako gastuak, garraiokoa, aseguruak, lizentziak, baimenak etabar.

8.6.2.- Aurkeztu beharreko agiriak:

Lizitatuzaileen eskaintzetan, hornitu beharreko materialeen ezaugarriak erantsi beharko dabez. Baita produktu bakoitzaren laginak edo erakusgaiak.

Lizitatuzaileak konkretuki kontratu honen eskura jartzen dauzan bezeroaren harretarako zerbitzuen memoria aurkeztu beharko dau.

8.6.3.- Eskaintza ekonomikoa, idatziz aurkeztuko da, eta ez dira onartuko orban, akats edo hutsuneak eskaintzetan, eskainitakoa argi eta garbi ezagutzea eragozten badeutso Administrazioari.

8.6.4.- T.R.L.C.A.P. legearen 80 eta 87. artikuluen arabera, lizitatuzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango dau, baina horrek nahi dauzan aldaerak sartu ahal izango dauz eskaintza horretan, baldintza plegu honetako laburpen orriko “P” **ATALEAN** horrela jasota badago.



8.6.5.- Edozein kasutan, eskaintzak esleipen proposamenerako sailkatzeko irizpideak erabili ahal izateko, beharrezko agiriak aurkeztu beharko dabez.

8.6.6.- Entregatzeko epe osoa, zatikako epeak horrela zehaztu bada baldintza plegu honeetan, eta baita berme epea ere.

8.6.7.- Aipatutako agirietakoren bat ez aurkezteak edota goian aipatutakoetan xedatutakoa zehatz mehatz ez betetzeak, **eskaintza ez onartzea ekarriko dau**, R.G.L.C.A.P.-ren 81. artikuluan xedatutako salbu.

9.- ESKAINTZAK IREKI ETA AZTERTZEKO ERA.

9.1.- Modu eta epeetan aurkeztutako eskaintzen balorazioa, Kontratazio mahaiari egingo da.

9.2.- Kontratazio Mahaiak prozedura honetako esleipen erizpideen ondoriozko puntuaketaren arabera esleipen proposamena aurkeztuko dau. Esleipena formalki onartu aurretik, esleipendunak bere sasoian aurkeztu barik utzi ebazan agiri guztiak aurkeztu beharko dauz.

9.3.- Behin betiko esleipen erabakia, Bermeoko Udaleko Gobernu Batzarrari jagoko eta bere aukerakoa izango da, plegu honetan zehaztutako irizpideen arabera; ondorioz, Administrazioak onuragarrien eristen jakon eskaintzaren aldeko esleipena erabaki ahal izango dau, edo lehiaketa hutsik deklaratu, nahiz eta eskaintza bakar bat izan eta baldintza guztiak bete; bai kasu batean edo bestean, lizitatzailerik ez dau inolako kalte-ordainik jasoteko eskubiderik izango, eta Administrazioak edozein lizitatzailerik esleitu ahal izango deus kontratua behin betiko.

9.4.- T.R.L.C.A.P. legearen 83.5 artikulua xedatutakoaren arabera, esleipeneko eskaintza ausartegia izaeraduna dala aurriztuz bada, esleipen prezioaren %20ko bermea exijituko da edo lizitazio prezio osoarena, aurrekontua banakako prezioetan zehaztuta dagoanean.



9.5.- Aurkeztutako eskaintzak, bai onartuak bai ireki bako eskaintza baztertuak ere, edota behin irekita ez onartuak izan diranak ere, espedientean artxibatuko dira errekurtsuak aurkezteko epeak agortu arte, ezelako errekurtsorik ez dagoanean, eta hortik aurrera interesatuek agiri horreen eskura izango dira.

10.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

10.1.- Esleipena egin eta erabakiaren jakinarazpena hartzen dauan hurrengo egunetik hasita, **hamabost (15) eguneko epearen barruan**, esleipendunak behin betiko bermea aurkeztu beharko dau Bermeoko Udaleko Diruzaintza sailan. (Intxausti kalea 2-1. 48370 Bermeo), pleguetako laburpen orriko “J” **ATALEKO** dirukopuruan, eta T.R.L.C.A.P. legearen 36 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa beteaz, eta R.G.L.C.A.P.-ko 55. artikulua xedatutako moduetan.

Kreditu entitateetako abala aurkeztekotan, **5.ERANSKIN**-eko eredia erabili daiteke.

10.2.- Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dagozan legezko xedapenak bete behar dauz. Administrazioak ez dau inolako erantzukizunik izango xedapen horreek betetzen ez badira.

10.3.- Lanak egiten jardungo dauan enpreseak, hau da, esleipendunak, udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

10.4.- Esleipendunaren ardura da zerbitzu eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 97. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

10.5.- Esleipendunak, esleipen erabakiaren jakinarazpena hartzen dauan hurrengo egunetik hasita, **hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan**, jagokon Kontratu Administrazioaren agiria sinatzera behartuta dago. Eragin guztietarako, T.R.L.C.A.P



legearen 54. artikuluan xedatutakoa izango da kontutan.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango dau kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

11.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA.

Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

Entregatutako materialean akatsik egon ezker, gertakari horren barri emon eta pleguetako laburpen orriko **“L” Atalean** azaldutako epearen barruan aldatu beharko dau esleipendunak.

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, zerbitzua emoteko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan emon gabe badagoz, Udalak bi aukera izango dauz: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen dan egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,12 euro kontratuaren prezioaren 601,01 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen dauen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango dau kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin daitela erabakitzeko.



B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badau, Udalak bi aukera izango dauz: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartea.

12.- ESLEIPENDUNARI ORDAINKETAK.

12.1.- Esleipendunak, egitan entregatutako eta Administrazioak formalki jasotako horniduren ordainketaren eskubidea dauka, kontratuan zehaztutako baldintzapean, Plegu honetako laburpen orrian bestelako ordainketa modua zehazten izan ezik..

12.2.- Ordainketak gehienez hirurogei (60) eguneko epea burutuko dira, T.R.L.C.A.P legearen 99. artikulua xedatutakoaren kalte barik.

13.- KONTRATUAREN ALDAKETAK.

13.1.-Herri-onurako arrazoiak dirala eta, Udalak kontratua aldatu ahal izango dau, behar berriak edo ustegabeko arrazoiak sortzen diranean. Esleipendunak ez dau inolako kalte-ordainik jasoteko eskubiderik izango, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 192.c artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

13.2.- Interes publikoa dala medio, Administrazioak kontratuaren behin betiko etena erabakiko baleu, kontratistak entregatutako ondasunen ordainketaren eskubidea izango dau, entregatzeko prest dautzaz ordainketarena eta baita entregatu barik geratu diran ondasunei jagokon aurrikusitako etekin ekonomikoa ere.

Horren dirukopurua, prozedura kontraesankorraren bitartez zehaztuko da, Kontratazio organuak erabakia hartuz.

14.- KONTRATUAREN ZESIOA ETA AZPIKONTRATAZIOA.



14.1.- Kontratu baten eskubideak hirugarrengoei emon jakez zesio bidez, beti ere, esleipena egiterakoan, esleipendunaren baldintza pertsonal eta teknikoak erabakiorra izan ez badira.

Zesioa jasotzen dauanak, eginbehar eta eskubide guztietaz hartzen dau kargu. Hala ere, T.R.L.C.A.P. legearen 114. artikulua xedatutakoa bete beharko da.

14.2.- Azpikontratazioa dala eta, T.R.L.C.A.P. legearen 115. artikuluan xedatutakoa da aplikagarri, baina horrez gain, Administrazioari jakinarazten deuteson agirian, aipatutako betebeharrez gain, horren ezaugarri teknikoak ere agertu beharko dira.

14.3.- Inolaz ere, ezin izango da azpikontratatu esleipen prezioaren %50 baino gehiago suposatzen dabezan zatiak.

14.4.- Azpikontratatu esleipendun nagusiaren aurrean baino ez dauka erantzukizunik, eta beraz, Administrazioaren aurrean, esleipen nagusia da erantzukizun osoa daukana, baldintza pleguetan eta kontratuan xedatutakoa beteaz.

15.- KONTRATUAREN AMAIERA.

15.1.- Kontratu amaitzeko arrazoiak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 111., 192. eta ondorengo artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15.2.- Ondasunen harrera eta kitapena dala eta, T.R.L.C.A.P. legearen 110. artikuluan xedatutakoa beteko da.

15.3.- Berme epea.

Berme epea kontratuan finkatuko da, harrera aktaren datatik aurrera zenbatuz, eta berme epea amaitzen danean behin betiko bermea itzuli ahal izango da, esleipendunaren eskari bidez. Berme epea, plegu honen laburpen orriko **“M” ATALEAN** agertzen dana izango da.



16.- ADMINISTRAZIOAREN AHALMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

16.1.- Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengaitik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera emotea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta horren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

16.2.-Jagokozan erabakiak, bide administratiboari amaiera emongo deustoe eta berehala beteko dira.

16.3.- Kontratuaren interpretazio, aldaketa, erresoluzio eta eragindako efektuei buruz sortzen diran gatazkak, Kontratazio organuak erabakiko dauz eta bide administratiboaren amaiera ekarriko dabe. Erabaki horreen aurka, errekurtsio Kontentzioso-administratiboa jarri daiteke, jurisdikzio horren legediak xedatutakoaren arabera, bai Bilboko Kontentzioso-administratiboko epaitegian, bai Euskadiko Auzitegi Nagusiko Kontentzioso-administratiboko Salan, horrela bajagoko, expresuki uko eginaz beste edozein eskumenari. Errekurtsio hori jarri aurretik, interesatuek Berraztertze errekurtsioa jarri daikie horrela nahi badabe, azaroaren 26ko Administrazio Publikoetako Errejimen Juridiko eta Prozedura Administratibo Orrokorreko 30/92 Legearen 116 eta 117. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bermeon, 2007ko otsailaren 19an.



1.ERANSKINA: ESKAINTZA AURKEZTEKO EREDUA.

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea, NAN,, bere izenean edota
.....IFK/CIF zenbakidun

enpresaren ordezkari legez, Administrazio baldintza plegu zehatzetan eskatu bezala
kreditatzen dodana, ondorengo ADIERAZTEN DOT:

1.-
LEHIAKETAN parte hartzeko gonbidapena bidali dauala Bermeoko Udalak.

2.- Baldintza plegu tekniko, administrazio zehatzak, eta gainontzeko dokumentuak ere
aztertu eta ezagutzen dauzala.

3.- Baldintza Plegu Administratibo zehatzetako lehen atalean azaldutako legedia
ezagutzen dauala.

4.- Bere osotasunean eta aldaketa barik onartzen dauzala agiri guztiak, aplikagarri dan
testu legeak eta erreglamenduak, 2, 3 eta 5. ataletan aipatzen diranak.

5.- Kontratua aurrera erodateko konpromezua hartzen dauala, eta hitz ematen dot
kontratua honako prezio honetan burutuko dodala:

Hauek dira kopuruak eta portzentajeak (BEZ kanpo):

- 1.- _____ euro egiaztatua eta ados dagoen ikuskatutako espediente bakoitzeko.
- 2.- Argitara emandako aldizkako jakinarazpeneko zergen kopuruaren % _____.
- 3.- Argitara emandako behin kitatzen diren zergen kopuruaren % _____.

Data, Tokia eta sinadura.

¹ Gehienez bi hamartarrekin.



2. ERANSKINA- ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

(pertsona juridikodunak).

.....

(data)

.....J^{ak},

..... NAN zenbakiduna,

ENPRESAREN ORDEZKARI LEGEZ,

helbidean egoitza daukana,

Ziurtatzen dot, ez nik ez ordezkutzen dodan Sozietate Merkantilak ere, ezta Sozietate honen Gobernu Organua osotzen dauzan pertsonak ere, ez dagozala gaitasungabetuta, ekainaren 16ko 2/2000 R.D.L.-ak onartutako Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 20. artikuluan azadutako egoeran ez dagozalako.

Era berean, Ogasun eta Gizarte Segurantzaz, egunean daukazala ordainketak eta ez daukala zerga zorrik ezta Gizarte Segurantzaz zorrik ere, adierazten dau.

Eta horrela ager daiten, Administrazioagaz kontratatzeko lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazioaren efektuetarako, ondorengo ziurtagiria emoten da, Bermeon, 200...ko.....-arenan.

SINADURA,



3. ERANSKINA- ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

(pertsone fisikoak).

.....

(data)

.....J^{ak},

..... NAN zenbakiduna,
helbidean egoitza daukana,

Ziurtatzen dot, ez nik ez ordezkutzen dodazanak ere, ez dagozala gaitasungabetuta, ekainaren 16ko 2/2000 R.D.L.-ak onartutako Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 20. artikuluan azadutako egoeran ez dagozalako.

Era berean, Ogasun eta Gizarte Segurantzaz, egunean daukazala ordainketak eta ez daukala zerga zorrik ezta Gizarte Segurantzaz zorrik ere, adierazten dau.

Eta horrela ager daiten, Administrazioagaz kontratatzeko lizitatuileek aurkeztutako dokumentazioaren efektuetarako, ondorengo ziurtagiria emoten da, Bermeon, 200...ko.....-arenan.

SINADURA,



4. ERANSKINA: JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGARI BURUZKO

DEKLARAZIOA.

.....J^a/A^a:
.....NAN zenbakiduna.
.....enpresaren ordez
eta izenean.
.....I.F.K./CIF zenbakiduna.

Erantzunkizunpean, Adierazten dau:

1.- Aplikagarri dan legediaren arabera, eta konkretuki Jarduera Ekonomikoen Zergari buruz aplikagarria dan legedian xedatutakoaren arabera, behartuta dagozala aipatutako zergako matrikulan alta aurkeztera, ondorengo epigrafeetan, eta gaurko dataz altan dagozala.

.....
.....
.....

2.- (aukeratu hala bajagoko). Adierazten dau:

Zerga ordaintzera behartuta dagoala eta azken ordainketen errezibu agirien kopia erkatuak aurkezten dauz.

Jarduera Ekonomikoen zergako ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bateratuko 5.1.g) artikulua xedatutakoaren arabera salbuetsita dagoala. (Jarduerari Zerga hau garatzen den lehen bi zergaldietan ekiten dioten subjektu pasiboak.)

Jarduera Ekonomikoen zergako ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bateratuko 5.1.h) artikulua xedatutakoaren arabera salbuetsita dagoala. (Urteko eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak)

Bermeon, 200...koarenan.



5.ERANSKINA: ABALAREN EREDUA.

..... entitateak (abal-emailea dan kreditu entitatea),IFZ/NIF zenbakiduna, etajakinarazpenetarako helbideduna (herria eta p.k. ere adierazi), bere ordezkari eta izeneanJ^a/A^a (ahaldunen izen abizenak), botere nahiko daukienak aktu honetan ha derrigortzeko, agiri honen atzealdean egindako ahalorde askiestearen arabera.

ABALA

.....enpresari (abaldunaren izen abizenak edo sozietatearen izena), IFZ/NIF zenbakiduna, ekainaren 16ko 2/2000 RDL-ak onartzen dauan Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuak xedatutakoa beteaz, ondorengo betebeharrei erantzuteko: (kontratuaren objektua eta espedientearen zenbakia adierazi). espedientearen aurkezten dau Bermeoko Udalaren aurrean, euroko dirukopurua (idatzita eta zenbakiekin, bi hamartarrekin gehienez).

Abal-emaileak erantzunkizunpean adierazten dau, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamenduan zehaztutako baldintzak betetzen dauzala. Abal hau, lizitazioaren erantzukizun solidarioagaz ematen da, eskusio-onurari espresuki uko eginaz, Administrazio Publikoetako kontratuen legedian xedatutako terminuetara atxikiturik, baita garapeneko araudietara eta Bermeoko Udalaren aurrean aurkezten diran abalen harrera, erregistro eta gordeteko araubideari ere.

Abal hau indarrean izango da Bermeoko Udalak edo berak legalki izendatutako ordezkariak, honen itzulketara edota deuseztatena baimendu arte, T.R.L.CAP eta araudi osagarriak xedatutakoagaz bat etorritik.

(Tokia eta data)
(Entitatearen sozietate izena)
(Ahaldunen izenpea)

(Oharra: Behin behineko abalen kasuan, eta beti ere aldi baterako enpresa- elkarrearen aldeko abala izanik, ez dira onartuko elkarre horretako enpresa bakar baten aldeko abala, hau da, aldi bateko enpresa-elkarreko enpresa guztiak bermatu behar dauz abal horrek, espresuki adieraziz erantzukizuna bateratua eta solidarioa dala U.T.E/A.E.E. osatzen dabenen artean.)

